20 21

ZUMAIAKO FLYSCH

Flysch bat jatorri sedimentarioko facies harritsu bat da, estratu gogorren (kareharriak, hareharriak eta arbelak) eta bigunagoak diren beste batzuen artean (margak eta lutitak) osatuta. Horiek guztiek hostopil itxura ematen diote. Bigunagoak diren estratuak erraz higatzen dira, eta ondorioz, gogorragoak direnak nabarmentzen dira.

Mundu mailan, flysch eredurik hoberenetariko bat Gipuzkoako kostaldean aurkitzen da, Deba eta Zumaia herrien artean. Eusko Jaurlaritzak babestuta dago, Deba-Zumaia Kostalde tarteko Babestutako Biotopoaren izendapenaren bidez. Itsaslabarrak eta 10 m sakoneraino urperatutako zonaldea izendapen horren barruan dago.

Flyscha duela 65 eta 55 milioi urte inguru sortu zen. Estratu horietan jasota geratu da maila mailen, klimaren aldaketak, magnetismoa, desagertu diren espezieak, etab.

Flyscharen berezitasunaren barruan, gune garrantzitsuena Itzurun Hondartza da (edo San Telmokoa), eta baita bere ingurua ere, Zumaiako hiriguneko mendebaldean kokatuta.


Herri hau eta Deba arteko kostalde osoa zoragarria bada ere, elementurik interesgarrienak zonalde txiki horretan kokatzen dira. Hala ere, ez dira asko nabarmentzen, ez direlako profanoaren begi bistaren aurrean geratzen. Horregatik, bisita gidatu bat edo nahiko espezializatua den dokumentazioa eskuragarri izatea garrantzitsua da flysch berezi hau ulertu eta gozatu ahal izateko.

Zumaia / Deba Kostaldeko Tarteko Baliabide Naturalen Antolamenduaren planean, hegoaldetik iparraldera, hiru gune zehatz hautatu dira:

1. Algorri punta eta kala: Mexiko Golkoaren zonaldean eroritako meteorito handi bati dagokion estratuan aurkitzen da (Kretazio / Tertziario arteko igarotzea edo K/T). Horrek, esaterako, ammoniteak eta dinosauroak desagertzea eragin zuen. Bere berezko ezaugarria iridio kopuru handia duela da. Metal hori ez da sarritan Lurrean aurkitzen, baina oso garrantzitsua da meteoritoetan

2. Itzurun Hondartzako hegoaldeko sektorea. Bi estratotipo orokor ditu, hau da, Estratigrafiako Nazioarteko Batzordeak adostutako mundu mailako geologia erreferentziak (ohikoa da lekuan bertan urrezko iltze batekin markatzea), besteak beste:

a) Daniar / Selandiar arteko muga (D/S) itsasoko mailaren jaitsiera garrantzitsu batekin lotuta.




Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaittza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.1. Kretazeo / Tertziario arteko igarotzea. 2. Mundu mailako Selandiar eta Thanetiar garaiko estratotipoak. 3. Paleozeno/Eozeno arteko igarotzea. UTM 30N ETRS89 // X: 556443 m // Y: 4793772 m.

b) Selandiar / Thanetiar arteko muga (S/T), Lurrak izandako polaritate magnetikoaren aldaketenetariko batekin lotuta

3 Itzurun Hondartzaren erdialdeko sektorea. Paleozeno eta Eozeno (P/E) arteko muga markatzen duen estratua dauka eta haren azterketatik badirudi egiaztatu daitekeela 6 eta 10.aren artean berotze globala eman zela.

Gehiago jakiteko: Zumaia eta Deba arteko Kostaldeko Tarteko Baliabide Naturalen Antolamendu Plana, 2009.




Selandiar aroko estratotipo orokorra identifikatzen duen urrezko iltzearen gainean ipinitako informazio plaka.

1. Kretazeo / Tertziario arteko igarotzea.

1. Kretazeo / Tertziario arteko muga markatzen duen iridio maila.

2. Garrantzi zientifiko handiko tartea.

Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Zumaia eta Deba arteko Kostaldeko Tartearen Baliabide Naturalen Antolamendu Plana (aldatuta).




2. Selandiar/ Thanetiar aldiko polaritate magnetikoaren aldaketa

1. Garrantzi zientifikoko zonaldea.

2. S/T Selandiar / Thanetiar aldiko mugaren polaritate magnetikoaren aldaketa.

3. Paleozeno aldi erdialdeko berotze global azkarra erregistratzen duen tartea.

4. D/S Itsasoko mailaren jaitsiera garrantzitsua Iturria: Eusko Jaurlaritza (aldatuta).



3. Paleozeno / Eozeno arteko igarotzea

1 . Klima jatorriko marga / kareharriko zikloak.

2. Paleozeno / Eozeno arteko berotze global azkarra markatzen duten margak.

3. Garrantzi zientifikoaren zonaldea.

Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Zumaia eta Deba arteko Kostaldeko Tartearen Baliabide Naturalen Antolamendu Plana (aldatuta).

